

**2023KO EUSKAL AUTONOMIA
ERKIDEGOKO AURREKONTU
OROKORRAK**

**PRESUPUESTOS GENERALES
DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA
DE EUSKADI 2023**



8

**LURRALDE
PLANGINTZA,
ETXEBIZITZA ETA
GARRAOAK**

**PLANIFICACIÓN
TERRITORIAL,
VIVIENDA Y
TRANSPORTES**

- Euskal Trenbide Sarea / Red Ferroviaria Vasca
- Euskotren Taldea / Grupo Euskotren
- Vísesa
- Alokabide

**2023KO EUSKAL AUTONOMIA
ERKIDEGOKO AURREKONTU
OROKORRAK**

**PRESUPUESTOS GENERALES
DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA
DE EUSKADI 2023**



Euskadi, auzolana, bien común

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

Lan honen bibliografía-erregistroa Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiaren katalogoa aurki daiteke:

Un registro bibliográfico de esta obra puede consultarse en el catálogo de la Biblioteca General del Gobierno Vasco:

<https://www.katalogoak.euskadi.eus/katalogobateratua>

Argitaraldia / Edición: 1.a, 2023ko urtarrila / 1a, enero 2023

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administratzioa / Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco
Ekonomia eta Ogasun Saila / Departamento de Economía y Hacienda

Internet: www.euskadi.eus

Argitaratzalea / Edita: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia / Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1 – 01010 Vitoria-Gasteiz

Aurkibidea / Índice :

| | |
|--|-----|
| 08-LURRALDE PLANGINTZA, ETXEBIZITZA ETA GARRAIOAK | |
| 08-PLANIFICACIÓN TERRITORIAL, VIVIENDA Y TRANSPORTES | 5 |
| Sekzioaren eta programen memoriaiak | |
| <i>Memorias de la Sección y de los Programas</i> | 6 |
| Gastuen egoera-orria | |
| <i>El Estado de Gastos</i> | 68 |
| 1228 BEM Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoa | |
| <i>MRR Mecanismo de Recuperación y Resiliencia</i> | 69 |
| 4311 Lurralde Plangintza, Etxebizitza, Garraioak. Egitura eta Laguntza | |
| <i>Estructura y Apoyo Política Territorial, Vivienda y Transportes</i> | 71 |
| 4312 Etxebizitza | |
| <i>Vivienda</i> | 74 |
| 4313 Lurralde Antolamendua | |
| <i>Ordenación Territorial</i> | 82 |
| 5131 Trenbideko garraioaren azpiegitura eta kudeaketa | |
| <i>Infraestructura y Gestión Transporte Ferroviario</i> | 85 |
| 5135 EAE-KO Trenbide Sare Berria-Kudeaketa Kreditoak | |
| <i>Nueva Red Ferroviaria en la CAE-Créditos Gestión</i> | 88 |
| 5136 Bilboko Hegoaldeko Tren Saihesbidea-Kudeaketa Kreditoak. | |
| <i>Variante Sur Ferroviaria de Bilbao-Créditos de Gestión</i> | 89 |
| 5141 Garraioaren plangintza | |
| <i>Planificación del Transporte</i> | 90 |
| 5414 Berrikuntzarako Funtsa | |
| <i>Fondo de Innovación</i> | 93 |
| Sarreren egoera-orria | |
| <i>El Estado de Ingresos</i> | 95 |
| 4312 Etxebizitza | |
| <i>Vivienda</i> | 96 |
| Gastuen laburpenak | |
| <i>Resúmenes de Gastos</i> | 98 |
| Sarreren laburpenak | |
| <i>Resúmenes de Ingresos</i> | 114 |
| ENTE, SOZIETATE ETA FUNDAZIO PUBLIKOAK | |
| ENTES, SOCIEDADES Y FUNDACIONES PÚBLICAS | 116 |
| Euskal Trenbide Sarea | |
| <i>Red Ferroviaria Vasca</i> | 117 |
| Euskotren Taldea | |
| <i>Grupo Euskotren</i> | 145 |
| Eusko Trenbideak, SA | |
| <i>Ferrocarriles Vascos, S.A.</i> | 146 |
| Euskotren Participaciones, SA | |
| <i>Euskotren Participaciones, SA</i> | 178 |
| VISESA | |
| <i>VISESA</i> | 194 |
| ALOKABIDE | |
| <i>ALOKABIDE</i> | 227 |

**08-LURRALDE PLANGINTZA, ETXEBIZITZA ETA GARRAIOAK
08-PLANIFICACIÓN TERRITORIAL, VIVIENDA Y TRANSPORTES**

Sekzioaren eta programen memoriak
Memorias de la Sección y de los Programas

LURRALDE PLANGINTZA, ETXEBIZITZA ETA GARRAO

PLANIFICACION TERRITORIAL, VIVIENDA Y TRANSPORTES

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak datorren urteko ekitaldirako dituen aurrekontuak ez dira izango 2022. urtean zehar gertatu diren gertaeretatik eratorritako testuinguru ekonomikotik kanpokoak. Pandemiaren osteko egoerak, konfinamendua kendu ondoren horrela deitu ahal bada, munduko ekonomia egoera horretan garatu baita, txertoak banatu ondoren, batez ere herrialde garatuenetan, munduko ekonomiak gora egitea aurreikusten zuen, COVID 19ak iraun arren. Hazkunde-aurreikuspenek urte ekonomiko on bat iragartzen zuten, izaera hedakorreko politiek bultzatuta, susperraldirako salbuespenezko tresnen bitartez. Europar Batasunaren testuinguruan, Next Generation EU Funtsak suspertze- eta hazkunde-politikak sustatzeko tresna nagusi gisa planifikatu ziren.

Baina, otsaila iritsita, hilaren hogeita lauan, Errusiako Federazioak Ukrainari eraso egin zion, bere lurradea inbadituz eta, horrela, gatazka beliko bat gauzatuz. Gatazka horrek nabarmen aldatu zituen nazioarteko komunitatean ordura arte indarrean egon ziren aurreikuspen ekonomiko guztia.

Errusiak Ukraina inbaditzearen ondoriozko zehapen ekonomikoek, funtsean G7 taldeko eta EBko potentziek erabakitakoek, ekonomiaren panorama baldintzatu dute, ez gatazkan implikatutako herrialdeena bakarrak, baita nazioarteko komunitateko gainerako herrialdeena ere, eta zaila da horren ondorioak epe entainera iragartza.

Ekitaldi honetan gerrak eragindako energia- eta nekazaritzako ekoizpenaren murrizketek ez ezik, Estatu Batuetako eta Erresuma Batuko interes-tasenigoa egiaztuak ere (azken horri lotuta egongo da EB) eragin dituzte inflazio-prozesuak (mundu-mailako inflazioak gora egin du). Bi alderdi horiek erabakigarriak izango dira Estatuko administrazioen aurrekontuak eta kontuak eratzeko orduan.

Arrisku eta faktore exogeno horiek gorabehera, EAEko ekonomiak susperraldi-joerari eutsi ahal izan dio 2021. urtearen bigarren erdian, pandemiaren aurreko egoerara itzultzeko lau puntura jarri da, baina Ukrainako gerraren ondoriozko aurreikuspen ekonomikoak arautzen dituen ziurgabetasun ekonomikoaren joerari esker, hazkunde-aurreikuspenak beherantz berrikusi dira herrialde guztietan eta, beraz, baita Euskal Autonomia Erkidegoan ere.

Nolanahi ere, gerra-gatazkan igoerarik gertatuko ez balitz, EAEko ekonomia egoera epidemiologikoak hobera egingo lukeela aurreikus liteke, eta, esan bezala, oraindik ere Next Generation EU Funtsen implementazioak eta EBren esparruan oraindik aldeko finantzaketa-baldintzek iraungo dute, nahiz eta hilabete hauetan garatu den egoera inflacionistak oso baldintzatuta egon.

EAEko barne-produktu gordinaren (BPGd) 2022ko hazkunde

Los presupuestos de la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi para el próximo ejercicio anual, no van a ser ajenos al contexto económico que se ha derivado de los acontecimientos que han tenido lugar a lo largo del año 2022. La situación pos pandémica, si puede ser llamada así después de haber sido levantados los confinamientos, en la que se ha desenvuelto la economía mundial, una vez distribuidas las vacunas, sobre todo en los países más desarrollados, preveía, aún a pesar de la persistencia de la COVID 19, un repunte de la economía mundial. Las predicciones de crecimiento auguraban un buen año económico impulsado por políticas de carácter expansivo a través de instrumentos excepcionales de recuperación. En el contexto de la Unión Europea los Fondos Next Generation EU, se planificaron como el instrumento de mayor incentivación de las políticas de recuperación y crecimiento.

Pero, llegado el mes de febrero, el día veinticuatro, la Federación Rusa agredió a Ucrania invadiendo su territorio y formalizando de este modo un conflicto bélico que alteró sustancialmente todas las previsiones de orden económico que hasta esa fecha estuvieron vigentes en la comunidad internacional.

Las sanciones de orden económico derivadas de la invasión rusa de Ucrania, acordadas fundamentalmente por las potencias del grupo G7 y la UE, han condicionado el panorama de la economía, no solo de los países implicados en el conflicto, sino también de resto de los países de la comunidad internacional, resultando difícil aventurar sus consecuencias a medio plazo.

Los procesos inflacionarios, con un aumento de la inflación de carácter mundial, producidos por las restricciones energéticas y de producción agrícola derivadas de la guerra en lo que va de ejercicio, la constatada subida de los tipos de interés en los EE.UU y en el Reino Unido, a la que no va a ser ajena la UE, van a ser determinantes a la hora de conformar los presupuestos y las cuentas de las diversas administraciones estatales.

A pesar de estos riesgos y factores exógenos, la economía vasca ha podido mantener una tendencia de recuperación a lo largo de segunda mitad del año 2021 colocándose a cuatro puntos de volver la situación previa a la pandemia, pero la tónica de la incertidumbre económica que rige las previsiones económicas consecuencia de la guerra ruso ucraniana, ha contribuido a que las perspectivas de crecimiento se hayan revisado a la baja en todos los países y por ende también en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

En todo caso, en el supuesto de que no se produjera una escalada en el conflicto bélico, la economía vasca se vería apoyada por una previsible mejoría de la situación epidemiológica que, como se decía, todavía persiste, la implementación de los Fondos Next Generation EU y unas condiciones de financiación todavía favorables en el marco de la UE, aunque muy condicionadas por el escenario inflacionista que se ha desarrollado a lo largo de estos meses.

El crecimiento estimado del PIB vasco en el año 2022 es

zenbatetsia % 4,5koa izango da, eta 2023ko ekitaldirako % 4,1era iritsiko dela kalkulatzen da, hori guztia Errusiari ezarritako zehapen ekonomikoen, energiaren prezioen eta nekazaritzako lehengaien nazioarteko portaeraren mende.

Adierazitakoaren ildotik, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak, 2023ko Aurrekontuen Legea egiteko jarraibideetan ezarritako jarraibideen arabera, bere egiten ditu hietan ezarritako helburuak, hau da, gobernuaren kudeaketaren eta ekintzaren gida izan direnak legegintzaldi honen hasieratik, eta gaur egun ere indarrean jarraitzen dutenak:

1- Premia handiena duten familien eta kolektiboen premieei erantzutea, horiek baitira pandemia-krisiak eta haren eragin ekonomikoek gehien eragin dietenak, baita Errusiaren eta Ukrainaren arteko gerraren ondorioek ere.

2- Bizitegi- eta hiri-parkea eraldatzea, bizigarriagoa eta jasangarriagoa izan dadin.

3-2030eko eta 2050eko agendatako garapen ekonomiko jasangarriko irizpideekin lerrokatutako trenbide-garraioko sare moderno baten garapena bultzatzea.

4- Inor atzean ez uztea kohesionatutako gizartea herrialde-inbertsio onentzat jotzen duten parametro batean ere.

Saila osatzen duten hiru arloen izaera funtzionala, bere eskumenen esparruaren arabera eta Gobernu Kontseiluak legegintzaldi honetarako adostutako Gobernu Programan ezarritako lan-ardatz eta -ildoetan oinarrituta, 2023ko ekitaldirako kontu hauek proposatzeko abiapuntua da.

Horrela, Lurralde Plangintzaren eta Hiri Agendaren arloak, Aurrekontuen Lege honetan, BULTZATU 2050 - Euskadiko Hiri Agenda jasotako helburuak garatzeko beharrezkoak diren partidak proposatzen ditu. Tresna hori Euskadin dauden eta irauten duten hiri-eremu kritiko eta kalteberak ikuspegi integral eta jasangarri batetik berrorientatzeko eta hiria berreraikitzeko prozesua zer izan behar den diseinatzeko oinarria da, eta horietako batzuetan jada esku hartzen ari da.

Etxebizitza da sailaren beste jarduketa-bektoreetako bat. 2020-2024 aldirako Etxebizitzaren Gida Plana, Etxebizitzaren aldeko Itun Soziala eta uztailaren 18ko 3/2015 Legearen arau-garapena dira oraindik ere etxebizitzaren arloan egin nahi den kudeaketaren ardatz egituratzaileak. Aurreko legegintzaldietatik lantzen ari diren alokairu-programak bideratuz, zabalduz eta indartuz lege-testu horretan ezartzen diren baldintzetara egokitutako alokairu-politika bultzatzea da, halaber, aurrekontu honetan aintzat hartzen den beste zutabeetako bat.

Visesa eta Alokabide erakundeen (biak sailari atxikitako sozietaeak) kontuak ere lege-testu honetan azaltzen dira.

Sailaren hirugarren arloa, garraioen arloa, inbertsio-pisuspezifiko handiena duen zatia da. Inbertsio propioak eta

del 4,5 %, y para el próximo ejercicio 2023 se estima que el crecimiento alcance el 4,1 %, todo ello a expensas de los efectos de las sanciones económicas impuestas a Rusia, el comportamiento de los precios de la energía y las materias primas agrícolas a nivel internacional.

Al hilo de lo reseñado, el departamento de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes, a tenor de las indicaciones establecidas en las directrices para la elaboración de la Ley de Presupuestos de 2023, hace suyos los objetivos marcados en ellas que han sido la guía de la gestión y de la acción gubernamental desde el inicio de la presente legislatura y que a día de hoy siguen vigentes:

1-Atender las necesidades de los hogares y colectivos más necesitados que son los que se han visto más afectados por la crisis pandémica y sus afecciones económicas, así como las consecuencias derivadas de la guerra ruso ucraniana.

2-La transformación del parque residencial y urbano con el fin de hacerlo más habitable y sostenible.

3-El impulso al desarrollo de una red de transporte ferroviario, moderna y alienada con los criterios de desarrollo económico sostenible de las agendas 2030 y 2050.

4-No dejar a nadie atrás en ninguno de los parámetros que definen a una sociedad cohesionada como mejor inversión de país.

La naturaleza funcional de las tres áreas que componen el departamento, en atención al ámbito de sus competencias y con base en los ejes y líneas de trabajo que se establecen en el Programa de Gobierno acordado en el Consejo de Gobierno para la presente legislatura, es el punto de partida desde el que proponen las presentes cuentas para el próximo ejercicio del año 2023.

Así, el área de Planificación Territorial y Agenda Urbana propone en la presente Ley de Presupuestos las partidas necesarias para desarrollo de los objetivos contemplados en la Agenda Urbana de Euskadi – BULTZATU 2050. Herramienta que se configura como base para diseñar lo que debe de ser el proceso de reorientación y reconstrucción urbanas, desde una perspectiva integral y sostenible, de aquellos ámbitos urbanos críticos y vulnerables que existen y persisten en Euskadi, y en los que, en algunos de ellos, se está ya interviniendo.

La vivienda, es otro de los vectores de actuación del departamento. El Plan Director de Vivienda 2020/2024, el Pacto Social por la vivienda, y el desarrollo normativo de la Ley 3/2015, de 18 de julio siguen siendo los ejes vertebradores de la gestión que tiene previsto realizar el área de vivienda. El impulso una política de alquiler ajustada a los requisitos que se establecen en ese texto legal, mediante la instrumentación, ampliación y potenciación de los diversos programas de alquiler en los que se viene trabajando desde legislaturas anteriores, es, también, otro de los pilares que son atendidos en este presupuesto.

Las cuentas de Visesa y Alokabide, sociedades ambas adscritas al departamento, también quedan expuestas en el presente texto legal.

El tercer área del departamento, el área de Transportes, representa la parte de mayor peso específico inversor. Las

Espainiako Gobernuak eskuordetutako edo agindutako inbertsioak dira bere kontuetako partidarik garrantzitsuenak, eta horrela daude jasota.

Datorren ekitaldirako aurreikusten diren inbertsioez gain, Mugikortasun Jasangarriaren Legea eta Mugikortasun Jasangarriaren Gida Plana, biak ere Gobernu Kontseiluak onartu eta Eusko Legebiltzarrera bidaliak, izango dira legealdi honetan sektorea antolatzeko eta planifikatzeko aurreikusitako tresnak, egungo EAEko gizarteak eskatzen dituen jasangarritasun-, plangintza- eta antolamendu helburuei jarraituz.

Trenbide-sare propioaren eta lantzen ari den estatuaren garapenaz gain, tarifen integrazioak eta garraioaren arloan esku hartzen duten operadoreen arteko koordinazioak aurrekontu horietan horiek garatzeko babes ekonomiko egokia dute.

Garraio-arloari atxikitako bi sozietateek, ETSk eta Euskotrenek, dagozkien partidak ere baditzte, beren jarduera garatzen duten alderdi guztiaren aritzeko.

Lege-testu honetan jasotako aurrekontu-ildo eta -partida horietako batzuk osatzeko, Next Generation EU Funtsak gauzatzeko programak gauzatuko dira. Jakina denez, funts horiek lagungarriak izango dira Europako herrialdeen susperraldi ekonomikoa bultzatzeko.

inversiones propias y las delegadas o encomendadas por el Gobierno de España, son las partidas más relevantes de sus cuentas, y así constan.

Además de las inversiones que se prevén para el próximo ejercicio, la Ley de Movilidad Sostenible, y el Plan Director de Movilidad Sostenible, leyes ambas aprobadas en Consejo de Gobierno y remitidas al Parlamento Vasco, van a ser los instrumentos previstos en esta legislatura para ordenar y planificar el sector atendiendo a los objetivos de sostenibilidad, planificación y ordenación que la actual sociedad vasca demanda.

Además del desarrollo de la red ferroviaria propia y del estado en la que se sigue trabajando, la integración tarifaria, la coordinación entre los diversos operadores que intervienen en el ámbito del transporte, tienen en estos presupuestos el debido respaldo económico para su desarrollo.

Las dos sociedades adscritas al área de transportes, ETS y Euskotren, disponen también de las correspondientes partidas que requieren para la realización de sus actividades en las diversas vertientes en las que desarrollan su actuación.

Algunas estas líneas y partidas de actuación presupuestarias recogidas en este texto legal, se verán complementadas con la ejecución de los diversos programas a través de los cuales se ejecutan los Fondos Next EU, fondos que, como bien es sabido, coadyuvan al impulso en la recuperación económica de los países europeos.

| PROGRAMA | PROGRAMA |
|---|---|
| 4311 LURRALDE PLANGINTZA, ETXEBIZITZA ETA GARRAOAK. EGITURA ETA LAGUNTZA | 4311 ESTRUCTURA Y APOYO DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL, VIVIENDA Y TRANSPORTES |
| ARDURADUNA | RESPONSABLE |
| <u>08 LURRALDE PLANGINTZA, ETXEBIZITZA ETA GARRAOAK</u> | <u>08 PLANIFICACIÓN TERRITORIAL, VIVIENDA Y TRANSPORTES</u> |
| ZERBITZU ZUZENDARIA | DIRECTORA DE SERVICIOS |
| KABINETEKO ZUZENDARIA | DIRECTOR DE GABINETE |

MEMORIA

Egitura eta laguntza programa Zerbitzu Zuzendaritzak eta Kabineteko Zuzendaritzak eramatzen dute aurrera. Hierarkian, sailburuaren menpe daude zuzenean, eta, izaera horizontaleko organoak izanik, saileko sailburuordetzei eta zuzendaritzei laguntza eskaintzen die sailaren helburuak lortzeko. Programa horri honako jardun-arlo hauek zuzendu eta koordinatzea dagokio:

Zerbitzu Zuzendaritzak

a) Ekonomia eta aurrekontua.

Sailaren aurrekontua egin eta nola betetzen den jakiteko jarraipena egitea, kontabilitate-expedienteak kudeatzea, Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren aurrean, expedienteak tramitatzeko beharrezko gastu baimenak onartzea, aurrekontu exekuzioaren inguruko informazioa ematea, eduki ekonomikoa duten azterlan eta memoriak antolatu, koordinatu, eta, hala behar izanez gero, egitea.

Etxebizitza sozialen, lokalen eta garajeen salmenta eta errentamenduaren kudeaketa eta jarraipena. Hipoteka-maileguen hileko fakturazioa eta ordaindugabean jarraipena.

Hiri-errentamendurako fidantzak jartzeko erregimen itundua tramitatu, ematea ebatzi eta aurrekontuz kanpoko kontabilizazioa egitea.

b) Pertsonak.

Antolaketa, langileak eta gai orokorretako zerbitzua: saileko giza-baliabideak kudeatu eta antolatzeko, langileei buruzko politika bideratzeko, kokapenak eta ekipamenduak kudeatzeko, eta prestakuntzarako planak aurrera eramateko.

c) Euskara.

Euskararen Erabilera Normalizatzeko VI. Planaren garapena, jarraipena eta ebaluazioa gauzatzen ditu, baita horrekin lotuta dagoen urteko kudeaketa-planarena ere. Gainera, planaren tarteko eta

El Programa de Estructura y Apoyo se desarrolla a través de la Dirección de Servicios y la Dirección de Gabinete, órganos de carácter horizontal bajo la dependencia directa, jerárquica del Consejero, cuyo fin es prestar apoyo al Consejero, a las Viceconsejerías y las Direcciones para la consecución de los objetivos del Departamento. A este programa le corresponde la dirección y coordinación de las siguientes áreas de actuación:

Dirección de Servicios

a) Económico-presupuestaria.

Elabora y realiza el anteproyecto del presupuesto del departamento y el seguimiento del presupuesto. Gestiona los expedientes contables de gastos e ingresos ante la Oficina de Control Económico, las autorizaciones de gasto precisas para la tramitación de expedientes, proporciona la información sobre la ejecución presupuestaria y la programación coordinando, en su caso, la elaboración de estudios y memorias de contenido económico.

Gestiona y realiza el seguimiento de la venta y arrendamiento de las viviendas sociales, locales y garajes. La facturación mensual de los préstamos hipotecarios y seguimiento de los impagados.

Tramita y resuelve la concesión y contabilización extrapresupuestaria del régimen concertado para el depósito de las fianzas de arrendamiento urbano.

b) Personas.

Organización, personal y asuntos generales: gestiona y organiza los recursos humanos del Departamento y la política de personal, ubicaciones y equipamientos y los planes de formación entre otras actuaciones.

c) Euskera.

Lleva a cabo el desarrollo, el seguimiento y la evaluación del VI Plan de Normalización del Uso del Euskera, así como el Plan de Gestión Anual asociado. Además, elabora informes de evaluación

amaierako ebaluazio-txostenak egiten ditu. Bestalde, sailaren jardun-esparruen funtzionamenduan erabili beharreko hizkuntz-irizpideak zehaztu eta ezartzen ditu, baita horren jarraipena egin ere. Era berean, saileko langileek lantzen dituzten dokumentuen itzulpenak eta zuzenketak kudeatzen ditu. Gainera, "euskaraz mikroplana" izeneko zabaltzen jarraituko du. Ekintza hori euskaraz modu eraginkorrean eta normalizatuan lan egiteko modua eta tresnak bultzatu eta sustatzean datza. Bukatzeko, euskara atalaren webgunea elikatzen jarraituko du, eguneratuta egon dadin.

d) Emakumeen eta Gizonen Berdintasuna.

Berdintasunerako Unitatea: Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko bizi-zetarako otsailaren 18ko 4/2005 Legean, Euskal Autonomia Erkidegoko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Planean eta berdintasunaren arloan dagokion sailaren plangintzan xedatutakoa gauzatzeko sustapenaz, koordinazioaz eta lankidetzaz arduratzen da.

e) Lege-aholkularitza.

Xedapen orokorrak (lege-aurreproiektuak, arauak dituzten dekretuak eta aginduak), administrazio-egintzak, Jaurlitzaren Kontseiluaren erabakiak, hitzarmenak prestatu eta bideratzeko lege-euskarria ematea, laguntzen deialdiak, etab., ondare-erantzukizuneko eta ofiziko berrikuspeneko espedienteen instrukzioa eta sailean eragina duten auzien eta Europar Batasuneko Zuzenbidea hautsi izanaren espedienteen jarraipen eta tramitazioa, erreklamazio eta errekurso administratiboak ebazteko aholkularitza, saileko organoek eta unitateek eta herritarrek egindako kontsultei lege-aholkularitza orokorra eskaintza, etab.

Gaiak Jaurlitzaren Kontseilurako izapidezeta eta xedapenak eta egintzak aldizkari ofizialean argitaratzea kudeatzen du.

f) Kontratazioa.

Sailaren eskumenekoak diren administrazio-kontratazioko expedienteak izapidetu, ebatzi eta formalizatzeko, aholkularitza kontratazio gaietan, kontratazio-espeditenteen baldintza-agiriak idazterakoan gainbegiratu eta aholku ematea, Kontratazio Mahaiaren kudeaketa eta saileko Kontratazio Mahaiaren aholkulari, bokal edota idazkari lanari loturikoak egitea, kontratazio arloko erreklamazio eta errekurtoen ebazenen aholkularitza, eta, dagokionean, ebazen-proposamena, Administrazio-Kontratazioaren Aholkularitza Batzordeko lanak kide izatearen, eta ondare-espeditenteen tramitazio, ebazenak eta formalizazioa. Gainera, bestelako lizitazio motak bideratzean, gardentasunerako neurriak bultzatzen ditu.

g) Herritarak eta berrikuntza.

Zerbitzu Zuzendaritzak izapidezte elektronikoa sailaren jardueretan ezartzeko zeharkako hainbat

intermedia y final del plan. Por otro lado, define, establece y hace seguimiento de los criterios lingüísticos a aplicar en el funcionamiento de las áreas de actuación del Departamento. Asimismo, gestiona las traducciones y corrección de los documentos que elabora el personal del departamento. Además, continuará extendiendo la experiencia denominada "euskaraz mikroplana" que consiste en promover e impulsar el modo y las herramientas para que se trabaje de forma efectiva y normalizada en euskera. Por último, seguirá cargando contenidos en el sitio web de la unidad de euskera, para que esté actualizada.

d) Igualdad de mujeres y hombres.

Unidad de Igualdad: Se encarga del impulso, coordinación y colaboración para la ejecución de lo dispuesto en la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres y vidas libres de violencia machista contra las mujeres, y en el VII Plan para la Igualdad de Mujeres y Hombres en la Comunidad Autónoma de Euskadi, así como lo definido en la planificación departamental correspondiente en materia de igualdad.

e) Jurídico-administrativa.

Presta el soporte jurídico para la elaboración y tramitación de disposiciones generales (anteproyectos de Ley, decretos y órdenes con contenido normativo) y de actos administrativos y acuerdos de Consejo de Gobierno y de convenios, convocatorias de ayudas, etc., realiza la instrucción de expedientes de responsabilidad patrimonial y revisiones de oficio y el seguimiento y tramitación de todos los pleitos y de los expedientes de infracción de Derecho comunitario en los que interviene el Departamento, el asesoramiento en la resolución de reclamaciones y recursos administrativos; asesoramiento jurídico general a consultas realizadas por órganos y unidades del Departamento y ciudadanía, etc.

Gestiona la tramitación de asuntos a Consejo de Gobierno y la publicación de disposiciones y actos en los boletines oficiales.

f) Contratación.

Tramita, resuelve y formaliza los expedientes de contratación administrativa competencia del Departamento, asesora en materia de contratación, supervisa y asesora en la redacción de los pliegos de los expedientes de contratación, gestiona la Mesa de Contratación y las actuaciones derivadas de la Secretaría-Vocalía-Asesoría de la Mesa de Contratación departamental, asesora en la resolución de reclamaciones y recursos en materia de contratación y prepara, en su caso, la propuesta de resolución, las actuaciones derivadas de la participación en la Junta Asesora de la Contratación Administrativa, así como la tramitación, resolución y formalización de expedientes patrimoniales, impulsando medidas de transparencia absoluta en la tramitación de todo tipo de licitaciones.

g) Ciudadanía e innovación.

La Dirección de Servicios impulsa y lidera diversos proyectos transversales de implantación de la

proiektu bultzatu eta zuzentzen ditu.

Publizitate-harremanak eta azterlan eta txotxen orokorrak ere bideratzen ditu.

h) Estatistika.

Sailaren jardun-arloetan sartzen diren eta EAEko Estatistika Planean jasota dauden estatistikako informazio beharrak asetzera eta Euskal Estatistika Antolakundearen organoetan parte hartzea.

i) Informatika.

Saileko ekipamendu eta aplikazioek behar bezala funtzionatzeko behar diren baliabide informatikoak ezarri eta optimizatzeko urratsak ematea.

j) Herritarak eta gardentasuna.

Gardentasunari eta informazio publikoa eskuratzeari buruzko jarduerak bultzatzen eta koordinatzen ditu.

Kabineteko Zuzendaritza

a) Beste erakunde batzuekiko harremanak.

Jaurlaritzako gainerako sailekiko, Legebiltzarra kiko eta Arartekoaren kiko harremanak bideratzen ditu. Era berean, komunikazio instituzionala eta protokolo-harremanak ere baditu.

tramitación electrónica en las actuaciones del Departamento.

También canaliza las relaciones publicitarias y los estudios e informes de carácter general.

h) Estadística.

Cubre las necesidades de información estadística de las diferentes áreas de actuación del Departamento recogidas en el Plan Vasco de Estadística y participa en los órganos de la Organización Estadística Vasca.

i) Informática.

Implanta y optimiza los recursos informáticos necesarios para el funcionamiento de los equipos y aplicaciones del Departamento.

j) Ciudadanía y transparencia.

Impulsa y coordina las actuaciones relativas a transparencia y acceso a la información pública.

Dirección de Gabinete

a) Relaciones con otras instituciones.

Canaliza las relaciones con el resto de Departamentos del Gobierno, con el Parlamento y con el Ararteko. Así mismo lleva la comunicación institucional y relaciones protocolarias.

| HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA | MAGNITUDEA MAGNITUD | OBJETIVO ACCION INDICADOR |
|---|---|--|
| 1. SAILBURUORDETZEI ETA ZUZENDARITZEI LAGUNTZA EMATEA, SAILAREN HELBURUAK LORTZEKO. <p>a) Ekonomiaren eta aurrekontuen kudeaketa eta kontrola, jarraipena egitea, lehen kontu-hartzea eta aurrekontuen aurreproiektua egitea.</p> <p>1. Kudeaketa-dokumentuak. 2. Aurrekontuak zenbateraino gauzatu diren jakiteko txostenak. 3. Sailari atxikitako erakunde eta sozietate publikoen aurrekontuei jarraipena egiteko bilerak. 4. Zuzendaritzei jarraibideak ematea espedienteak behar bezala bidera ditzaten. 5. Aurrekontuen aurreproiektuak, bilerak. 6. Etxebitzta, lokal eta garaje sozialen salmenta eta errentamendua kudeatzea. 7. Hiri-fidantzak jartzeko erregimen itundua kudeatzea.</p> | 14.200 15 16 6 1/14 12.000 140 | 1. PRESTAR APOYO A LAS VICECONSEJERÍAS Y DIRECCIONES PARA LA CONSECUCIÓN DE LOS OBJETIVOS DEL DEPARTAMENTO. <p>a) Elaboración anteproyecto del Presupuesto gestión, seguimiento, intervención previa y control económico-presupuestario.</p> <p>1. Documentos de gestión. 2. Informes sobre el grado de ejecución de los presupuestos. 3. Reuniones para el seguimiento del Presupuesto de los Organismos y Sociedades Públicas adscritas al Departamento. 4. Instrucciones a las Direcciones para una correcta y adecuada tramitación de los expedientes. 5. Anteproyecto de presupuestos, reuniones. 6. Gestión venta y arrendamiento de viviendas , locales y garajes sociales. 7. Gestión régimen concertado depósito de fianzas urbanas.</p> |

| HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA | MAGNITUDEA MAGNITUD | OBJETIVO ACCION INDICADOR |
|--|---|--|
| b) Langileen alorreko administrazio, kudeaketa lan arrunta eta prestakuntza. 1. Langileen arloko jarduerak: ordutegi-kontrola, lanaldi-aldekak, lanaldien murrizketak, baimenak eta lizenziak, kontratacioak eta izendapenak. 2. Nominen arloko jarduerak (altak, bajak, LEIg, nominen gorabeherak, kotizazioak, kenketak, atxikipenak, etab.). 3. Txostenak. 4. Bateragarritasun-espedienteak. 5. Aginduak, ebazpenak, zirkularak. 6. Kudeaketa dokumentuak. 7. Kanpoko erregistroak: sarrerak/irteerak. 8. Prestakuntza-ekintzak. 9. Prestakuntza jaso duen pertsonak. | >6.400 >320 >320 >2 >24 >2.400 >200.000 >100 >150 | b) Administración, gestión ordinaria en materia de personal y formación. 1. Actuaciones en materia de personal: Control Horario, Cambios de jornadas, Reducciones de jornadas, Permisos y Licencias, Contrataciones, Nombramientos. 2. Actuaciones en materia de nómina (altas, bajas, I.T., incidencias de nómina, cotizaciones, deducciones, retenciones, etc.). 3. Informes. 4. Expedientes de compatibilidad. 5. Órdenes, Resoluciones, Circulares. 6. Documentos de gestión. 7. Registros externos: Entradas/Salidas. 8. Acciones formativas. 9. Personas formadas. |
| c) Hizkuntza-normalizazioa sustatzea eta dokumentuen itzulpena eta zuzenketa kudeatzea. 1. Euskara Mikroplanak. 2. Euskara mikroplanetan parte hartzen duten pertsonak. 3. Hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko ikastaroetan parte hartzen duten langileak. 4. Lanpostuaren hizkuntza-eskakizuna egiztatzen duten langileen ehunekoa. 5. Euskaraz lan egiteko berariazko ikastaroen matrikulak. 6. Euskaraz sortu eta berrikusteko bidalitako testuak. 7. Itzuli beharra duten dokumentuak. | >8 >150 >10 >65 >20 >500 <1.000 | c) Impulsar la normalización lingüística y gestionar la traducción y corrección de documentos. 1. Microplanes de Euskera. 2. Personas que participan por los microplanes de euskera. 3. Personas que participan en cursos para la acreditación de perfiles lingüísticos. 4. Porcentaje de personal que acredita el perfil lingüístico del puesto que ocupa. 5. Matrículas de cursos específicos para el uso del euskera. 6. Textos creados en euskera y enviados para su revisión. 7. Documentos con necesidad de traducción. |
| d) Genero-ikuspegiarekin loturiko ekintzak bultzatu, babestu eta koordinatzea. 1. Berdintasun Planak diseinatzea eta egitea. Urteko Programa Plana. 2. Berdintasunaren alorreko plangintzaren jarraipena eta ebaluazioa. Programa Dokumentuaren koordinazio- eta jarraipen-bilerak saileko langileekin. Programatutako ekintzak noraino bete diren | 1 37 1 | d) Impulsar, apoyar y coordinar las políticas de igualdad de mujeres y hombres. 1. Diseño y elaboración de Planes de Igualdad. Plan Programático anual. 2. Seguimiento y evaluación de la planificación en materia de igualdad. Reuniones de coordinación y seguimiento del Documento Programa con personal del Departamento. Evaluación del cumplimiento de las acciones |

| HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA | MAGNITUDEA MAGNITUD | OBJETIVO ACCION INDICADOR |
|--|------------------------|---|
| | | |
| ebaluatzea. | | programadas. |
| Sailaren Programa Dokumentuan aurreikusitako ekintzak. | 25 | Acciones previstas en el Documento Programa del Departamento. |
| 3. Langileei emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloko lagunza eta aholkularitz teknikoa ematea. | | 3. Asistencia y asesoramiento técnico en materia de igualdad de mujeres y hombres al personal. |
| Zirkularak eta jakinarazpenak. | 10 | Circulares y comunicaciones. |
| Aholkularitza-dokumentuak. | 20 | Documentos de asesoramiento. |
| Erantzundako kontsultak. | >50 | Consultas atendidas. |
| 4. Sailaren arau, politika, programa eta ekintzetan genero-ikuspegien txertaketa sustatzeko jarduketak. | | 4. Actuaciones para impulsar la integración de la perspectiva de género en las normas, políticas, programas y acciones del Departamento. |
| Berdintasunaren alorreko prestakuntza sustatzeko jarduketa. | 5 | Actuaciones para impulsar la formación en materia de igualdad. |
| Genero-ikuspegia plan, kontratu, diru-lagunza, hitzarmen eta aurrekontuetan txertatzeko jarduketa. | 20 | Actuaciones para integrar la perspectiva de género en planes, contratos, subvenciones, convenios y presupuestos. |
| 5. Berdintasunaren arloan eskudun diren entitate, organo eta erakundeekiko solasaldi teknikoa eta koordinazioa. | | 5. Interlocución técnica y coordinación con entidades, órganos y entidades competentes en igualdad. |
| Saileko Talde Teknikoarekin egindako bilerak. | 3 | Reuniones del GTD (Grupo Técnico Departamental). |
| Sailarteko Talde Teknikoarekin egindako bilerak. | 10 | Reuniones del GTI (Grupo Técnico Interdepartamental). |
| Beste organo edo erakunde batzuekin egindako bilerak. | 10 | Reuniones con otros órganos o instituciones. |
| e) Aholkularitza tekniko-juridikoa ematea, saileko zerbitzuekin elkarlanean. Xedapen orokorrak eta hitzarmenak landu eta kontrolatzea. Txostenak eta lege-aholkularitza, oro har. | | e) Asesoramiento técnico-jurídico, en coordinación con los distintos servicios del Departamento. Elaboración y control de disposiciones de carácter general y de convenios. Informes y Asesoría Jurídica en general. |
| Izaera orokorreko xedapen arauemaileak tramitatzeko egindako txosten juridikoak. | 10 | Informes jurídicos emitidos en la tramitación de disposiciones normativas de carácter general. |
| Administrazio-egintzak tramitatzeko egindako txosten juridikoak. | 15 | Informes jurídicos emitidos en la tramitación de actos administrativos. |
| Diru-laguntzak tramitatzeko egindako txosten juridikoak. | 40 | Informes jurídicos emitidos en la tramitación de subvenciones. |
| Hitzarmenak eta Enkarguak izapidetzeko egindako txosten juridikoak. | 30 | Informes jurídicos emitidos en la tramitación de Convenios y Encargos. |
| Bideratutako ondare-erantzukizuneko expedienteak. | 10 | Expedientes de responsabilidad patrimonial tramitados. |
| Bideratutako ofiziozko berrikuspen-expedienteak. | 3 | Expedientes de revisión de oficio tramitados. |
| Administrazio-errekursoak proposamenak. | 10 | Propuestas de resolución de recursos administrativos. |
| Idatzitako txosten juridikoak. | 20 | Informes jurídicos escritos. |

| HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA | MAGNITUDEA MAGNITUD | OBJETIVO ACCION INDICADOR |
|--|------------------------|---|
| Auzien inguruko izapide eta komunikazioak. | 500 | Trámites y comunicaciones relativas a pleitos. |
| Kobratutako kostu judizialak. | >70% | Costas judiciales cobradas. |
| Europar Batasuneko Zuzenbidea hautsi izanaren espedienteen inguruko izapideak eta komunikazioak. | 5 | Trámites y comunicaciones relativas a expedientes de infracción de Derecho comunitario. |
| Gobernu Kontseiluaren akordioak. | 10 | Acuerdos de Consejo de Gobierno. |
| Gainontzeko sailetako, Estatuko Administrazioko eta Europar Batasuneko arau-proietkuen inguruko balorazioa | 20 | Valoración de proyectos normativos de otros Departamentos, de la Administración del Estado y de la Unión Europea. |
| Aholkularitza-bilera presentzialak. | 500 | Reuniones de asesoramiento presencial. |
| Aholkularitza-komunikazioak, emailez. | 2.000 | Comunicaciones de asesoramiento por e-mail. |
| Aholkularitza-komunikazioak, telefonoz. | 2.000 | Comunicaciones de asesoramiento por teléfono. |
| Informazio publikoa eskuratzeari buruzko espediente ebatziak. | 5 | Expedientes de acceso a la información pública resueltos. |
| f) Sailaren jarduketa alorreko administrazio-kontratuak. | | f) Contratación administrativa en las áreas de actuación del Departamento. |
| 1. Kontratacio-espedienteak. | 210 | 1. Expedientes de contratación. |
| 2. Kontratacio-espedienteak gauzatzeari buruzko txostenak. | 40 | 2. Informes sobre ejecución de los expedientes de contratación. |
| 3. Kontratacio gaietarako aholkularitza. | 250 | 3. Asesoramiento en materia de contratación. |
| 4. Jakinarazpenak. | 3.000 | 4. Notificaciones. |
| 5. Kontratu-gorabeherak izapidezeta. | 15 | 5. Tramitación de incidencias contractuales. |
| 6. Likidazioak, aldaketak, luzapenak, prezioen berrikuspenak eta abar izapidezeta. | 100 | 6. Tramitación de liquidaciones, modificaciones, prórrogas, revisiones de precios, etc. |
| 7. Administrazio klausula berezien pleguak gainbegiratzea. | 65 | 7. Supervisión de pliegos de cláusulas administrativas particulares. |
| 8. Kontratacio Mahaiko Idazkari lanak burutzea. | 100 | 8. Actuaciones derivadas de la Secretaría de la Mesa de Contratación. |
| 9. Administrazio Kontratacioaren Aholkularitza Batzordearen bilerak. | > 10 | 9. Reuniones de la Junta Asesora de la Contratación Administrativa. |
| 10. Legebiltzarreko galderei erantzuteko eta informazio dokumentatua eskatzeko dokumentazioa prestatzea. | 30 | 10. Preparación de la documentación para dar respuesta a las preguntas parlamentarias y solicitud de información documentada. |
| 11. Kontratacio-arloko administrazio-errekursoak ebatzeko proposamenak. | 15 | 11. Propuestas de resolución de recursos administrativos en materia de contratación. |
| 12. EAEko Kontratuaren inguruko Errekursoen Administrazio Organoaren aurrean errekurso bereziak izapidezeta. | 4 | 12. Tramitación de recursos especiales ante el OARC. |
| 13. Ondare espedienteak. | 9 | 13. Expedientes patrimoniales. |
| 14. Kontratatzalearen profila eta Kontratuaren EAEko Registroa kudeatzea. | 1.050 | 14. Gestión de licitación electrónica, perfil de contratante y del Registro Vasco de Contratos. |

| HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA | MAGNITUDEA MAGNITUD | OBJETIVO ACCION INDICADOR |
|--|----------------------------|--|
| <p>g) Saileko estatistika organoak sailaren estatistika lanak egitea, Euskal Autonomia Erkidegoko Estatistikaren 4/1986 Legea betetze aldera.</p> <p>1. Indarrean dagoen EAEko Estatistika Ofizialeko Programan jasota dauden sailaren ardurapeko estatistika-eragiketak garatzea.</p> <p>2. Indarrean dagoen EAEko Estatistika Ofizialeko Programan sailari dagozkion estatistika-eragiketen proiektu teknikoak Eustaten izapideztea.</p> <p>3. EUSTATekin eta saileko beste estatistika-erakunde batzuekin batera bileretan parte hartza, indarrean dagoen EAEko Estatistika Ofizialeko Programan jasotako estatistika-eragiketak garatzeko.</p> <p>4. Batzordearen eta Euskadiko Estatistika Kontseiluaren eta lantaldeen bileretan parte hartza.</p> <p>5. Saileko planen ebaluazioaren parte hartza.</p> | 15 15 4 3 2 | <p>g) Elaboración de la Estadística Departamental a través del órgano estadístico, en cumplimiento de la Ley 4/1986, de Estadística de la Comunidad Autónoma.</p> <p>1. Desarrollo de las operaciones estadísticas responsabilidad del departamento, incluidas en el Programa de Estadística Oficial de la CAE vigente.</p> <p>2. Tramitación en Eustat de los proyectos técnicos de las operaciones estadísticas responsabilidad del departamento, incluidas en el Programa de Estadística Oficial de la CAE vigente.</p> <p>3. Participación, junto con EUSTAT y otros órganos estadísticos departamentales, en reuniones para el desarrollo de las operaciones estadísticas, incluidas en el Programa de Estadística Oficial de la CAE vigente.</p> <p>4. Participación en las reuniones de la Comisión y Consejo de Estadística de Euskadi y Grupos de Trabajo.</p> <p>5. Participación en la evaluación de los planes departamentales.</p> |
| <p>h) Saileko atalen azpiegitura informatikoen mantentze-lanak eta hobekuntza.</p> <p>1. Ekipo informatikoak erosteko proposamena, ekipoen konponketa eta mantentze-lanak, eta aplikazio eta ekipoen ustiapena.</p> <p>2. Sarbideak eta komunikazioak (internet, renting, urrunekoak).</p> <p>3. Instalazioak: aplikazioak, sarbideak, zerbitzuak.</p> | 20/50/50 200/400 150 | <p>h) Mantenimiento y mejora de infraestructuras informáticas de las diversas áreas del Departamento.</p> <p>1. Propuestas de adquisición de equipos informáticos, reparación y mantenimiento de equipos, explotación de aplicaciones y de equipos.</p> <p>2. Accesos y comunicaciones (Internet, Renting, Remotos).</p> <p>3. Instalaciones: Aplicaciones, Accesos, Servicios.</p> |
| <p>i) Saileko atalen behar informatikoen garapen eta diseinu funtzionala.</p> <p>1. Aplikazio informatikoen garapen eta analisia.</p> <p>Aplikazio informatikoak (berriak edo/eta hobekuntzak).</p> <p>Diagnostikoak eta prozesuak aztertzea.</p> <p>2. Lantaldeetan parte hartza.</p> <p>Berrikuntza eta Administrazio Elektronikoaren arloarekin.</p> <p>Sail-mailan, informazio sozietatearekin.</p> | 20 >5 3 2 | <p>i) Desarrollo y análisis funcional de necesidades informáticas de las diversas áreas del Departamento.</p> <p>1. Desarrollo y análisis de aplicaciones informáticas.</p> <p>Aplicaciones informáticas (nuevas y/o mejoras).</p> <p>Diagnósticos y análisis de procesos.</p> <p>2. Participación en grupos de trabajo.</p> <p>Con el área de Innovación y Administración Electrónica.</p> <p>Con la sociedad de información a nivel departamental.</p> |

| HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA | MAGNITUDEA MAGNITUD | OBJETIVO ACCION INDICADOR |
|--|--|---|
| j) Sailaren aginpideko zerbitzu komunak antolatu eta kudeatzea. Argitalpenak, zabalkunde eta komunikazioa. | | j) Organización y Administración de los servicios comunes del Departamento de competencia del mismo. Actividad editora, divulgativa y de comunicación. |
| 1. Komunikabideak artatzea. Prentsaurrekoak. Jakinarazpenen bidalketa. | 30 600 | 1. Atención a los medios de comunicación. Ruedas de prensa. Envío de comunicados. |
| 2. Ekitalditan parte hartza. | 4 | 2. Participación en Eventos. |
| 3. Euskadi.eus eta irekia guneetako edukiak. | 700 | 3. Presencia de contenidos en euskadi.eus e irekia. |
| 2. HELBURUA. PROIEKTU TRANSBERTSALAK KOORDINATU ETA BULTZATZEA HERRITARREN ETA BERRIKUNTZAREN ARLOAN | | 2. COORDINACIÓN E IMPULSO DE LOS PROYECTOS TRANSVERSALES EN MATERIA DE CIUDADANÍA E INNOVACIÓN |
| a) Sailaren jarduketak bultzatzea, izapidetze elektronikoaren arloan. | | a) Impulsar las actuaciones del Departamento en materia de tramitación electrónica. |
| 1. Elektronikoki izapidetutako jarduketen expedienteen ehunekoa. 2. Izapidetze elektronikoa duten diru-laguntzen deialdien ehunekoa. 3. Izapidetze elektronikoa duten kontratacio-expedienteen ehunekoa. 4. Izapidetze elektronikorako tresna ezberdineng erabiltzaileen ehunekoa. | >95% 100% 100% >95% | 1. Porcentaje de expedientes de actuaciones administrativas tramitados electrónicamente. 2. Porcentaje de convocatorias subvencionales con tramitación electrónica. 3. Porcentaje de expedientes de contratación con tramitación electrónica. 4. Porcentaje de usuarios y usuarias de las distintas herramientas de tramitación electrónica. |
| b) Sailaren jarduketak koordinatu eta haien laguntza ematea, izapidetze elektronikoaren arloan. | | b) Coordinar y apoyar las actuaciones del Departamento en materia de tramitación electrónica. |
| 1. Herritarra Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritzako administrazio elektronikoaren zerbitzuekin koordinazio-bilerak. 2. Sailetako erabiltzaileekin aholkularitzarako eta koordinaziorako bilerak. 3. Sailetako erabiltzaileei bidalitako zirkularrak eta komunikazioak. 4. Artatutako kontsulta eta eskaera puntuales. | 10 30 10 100 | 1. Reuniones de coordinación con los servicios de la Administración electrónica de la DACIMA. 2. Reuniones de asesoramiento y coordinación con las y los usuarios departamentales. 3. Circulares y comunicaciones remitidas a las y los usuarios departamentales. 4. Consultas y demandas puntuales atendidas. |
| c) Sailaren jarduketak sustatzea, koordinatzea eta haien laguntza ematea, gardentasunaren eta informazio publikoaren eskuragarritasunaren arloan. | | c) Impulsar, apoyar y coordinar las actuaciones del Departamento en materia de transparencia y acceso a la información pública. |
| 1. 15 egunetik beherako epe batean erantzundako kontsulta publikoen ehunekoa. 2. Epe barruan erantzundako informazio publikoa eskuratzeko kontsulten ehunekoa. | >80 >95 | 1. Porcentaje de consultas públicas respondidas en un plazo inferior a 15 días. 2. Porcentaje de consultas de acceso a la información pública respondidas en plazo. |

| HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA | MAGNITUDEA MAGNITUD | OBJETIVO ACCION INDICADOR |
|---|------------------------|---|
| 3. Sailaren web-orrian eskuragarri dagoen informazioa egunearatzearen ehunekoa. 4. Berriro erabili ahal diren formatuetan dagoen informazioaren ehunekoa. | >80 >30 | 3. Porcentaje de actualización de la información disponible en la web del Departamento. 4. Porcentaje de información disponible en formatos reutilizables. |
| 3. SAILEKO ORGANOEN ARTEKO HARREMANAK ETA GOBERNUKO BESTE ORGANOEKIKOAK KOORDINATU ETA, HALA BEHAR IZANEZ GERO, EZARRITAKO JARDUNBIDEARI JARRAITUZ, LEGBILTZARRAREKIKO HARREMANAK BIDERATZEA. 1. Saileko organoentzako, gobernuko gainontzeko organoekiko, eta bestelako administracioekiko harremanak bideratzea, Sailaren jarduketa alorreko irizpideak eta ekintzak bateratu ahal izateko. Bilerak, idazkiak eta komunikazioak. | 10/45 | 3. COORDINACIÓN ENTRE LOS DISTINTOS ÓRGANOS DEL DEPARTAMENTO Y DE ÉSTOS CON EL RESTO DEL GOBIERNO Y EN SU CASO, ENCAUZAMIENTO DE LAS RELACIONES CON EL PARLAMENTO POR EL PROCEDIMIENTO ESTABLECIDO. 1. Concertar las relaciones entre los órganos del Departamento y de éstos con el resto del Gobierno y otras Administraciones, para aunar criterios y acciones en ejecución de las áreas de actuación del Departamento. Reuniones, escritos y comunicaciones. |
| 2. Legebiltzararekin elkarlanean aritu eta koordinatzea. Legebiltzarreko galderen erantzunak. | >300 | 2. Interacción y coordinación con el Parlamento. Respuestas a preguntas parlamentarias. |
| Legez besteko proposamenak, mozioak eta interpelazioak. Informazio dokumentatuaren eskaerak. | 75 | Proposiciones no de ley, mociones e interpellaciones. Solicitudes de información documentada. |
| Kontroleko osoko bilkuretan esku-hartzeak. | >15 | Intervenciones en Plenos de Control. |
| Sailaren agerraldiak. | >15 | Comparecencias del Departamento. |
| Arartekoaren gaiak bideratzea. | >5 | Temas tratados ante el Ararteko. |

| PROGRAMA | PROGRAMA |
|--|---|
| 4312 ETXEBIZITZA | 4312 VIVIENDA |
| ARDURADUNA | RESPONSABLE |
| <u>08 LURRALDE PLANGINTZA, ETXEBIZITZA ETA GARRAIOAK</u> | <u>08 PLANIFICACIÓN TERRITORIAL, VIVIENDA Y TRANSPORTES</u> |
| ETXEBIZITZAKO SAILBURUORDEA | VICECONSEJERO DE VIVIENDA |

MEMORIA

A) INGURUNE OROKOR ETA SEKTORIAL ESPEZIFIKOA

2021-2023 aldirako Etxebitzaren Gida Planak bere ibilbide exekutiboaren erdia baino gehiago bete du gaur egun, eta 2023ko aurrekontua egiteko erreferentzia estrategikoa da. Ekitaldi horretan amaituko da indarraldia, eta etorkizuneko Gida Plan berria eztabaideratzen hasi beharko da.

2023an mantentzen dugun egungo misioa da etxebizitza duin eta egokiaren premia duten pertsonei erantzun integrala bermatzea, alokairu eskuragarrira eta egungo bizitegi-parkearen bizigarritasun- eta jasangarritasun-baldintzak hobetzen bideratutako baliabideen eskaintza handituz.

Etxebitzarako Eskubide Subjektiboa bermatuko duten prestazioen sistema ezartzen eta sakonki berrantolatzen ari da (2023an argitaratuko da), alokairu eskuragarrirako etxebizitza-parkearen hazkundea eta gizarte-kohesioa sendotuz, eta bizitegi-parke publikoaren eta pribatuaren birgaitzea sustatz, Europako Next Generation funtsak optimizatz, 2021ean eta 2022an jada birgaitze-politiketan gauzatutako aldaketa estrategiko baten bidez, honako hauek ardatz hartuta: eraikinen kalitatea eta bizigarritasuna, birgaitze integrala, irisgarritasuna, energia-efizientzia, klima-inpaktuaren murrizketa eta berrikuntza.

Europako funts horiek onartzeak dakaren aukera bakarra eta salbuespenezkoa da. Izan ere, gauzatzen ari diren kudeaketa- eta administrazio-erronka handiak planteatzen dizkigu. Horiek oreaktuta ikusi nahi ditugu, pertsonen eguneroko bizimodu nabarmen hobetuz, energia-kostuak murriztuz, energia berriztagarri garbiak garatuz eta klima-aldaketaren aurka borrokatz, emisio kutsataileak eta kontsumo ez-eraginkorraz murriztuz.

